



BERDINTASUNAREN ALDEKO KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

OINARRIAK: (soilik euskaraz)

1.- GAIA: berdintasunaren alde. Kontakizunak euskaraz aurkeztu beharko dira. Genero-ikuspegia txertatzen duten kontakizunak onartuko dira, eta batez ere, ikuspegi positibo batetik abiatutako ipuinak kontatzen duten horiek. Beraz, estereotiporik gabeko eta rol tradizionaletatik urrun dauden emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko kontakizunak baloratuko dira.

Lanak originalak eta berriak izan behar dira, eta aurretik saririk jaso ez dutenak edota argitaratu ez direnak. Gutxienez orrialde bateko luzera izango dute eta gehienez 4 orrialdekoa. Idazteko erabili behar den formatua:

- Lerroartekoa: 1.5
- Letra: Georgia
- Tamaina: 12

Haurren kontakizunak eskuz idatziak aurkeztu ahal izango dira. Kasu honetan aurkezpena ere baloratuko da.

Lehiaketan aurkezten diren kontakizunak Audio Ikastolaren esku geratuko dira. Ikastolak edozein argitalpen, kopia edo erakusketa egiteko eskubidea izango du.

2.- KATEGORIA: Bi kategoria ezartzen dira:

- Haurrak: 2010. eta 2013. urteen bitartean horretan jaiotako umeak (9-12 urte / LH3-6)
- Gazteak: 2004. eta 2009. urteen bitartean horretan jaiotakoak (13-17 urte / DBH-BATX)

3.- AURKEZTEKO BIDEA, EPEA ETA TOKIA:

Kontakizun bakoitza aurkeztu beharko da soilik izenburuarekin eta kategoriarekin, sinadurarik gabe, hau da, egilea identifika dezakeen daturik gabe. Lana gutun itxi baten barruan aurkeztuko da, gutun honen kanpoko aldean lanaren izenburua eta kategoria idatzi beharko delarik. Eta gutun horren barruan, beste bat sartuko da; bigarren honetan egilearen datuak idatziko dira: izena, abizenak, jaioteguna, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Kontakizunak Audio Ikastolan aurkeztu behar dira. Posta ziurtatua onartzen da, kasu horretan helbidea honako hau da: Motxotekale kalea, 16, 01400 Audio, Araba.

Lanak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 7an, eguerdiko 12:00etan, amaitzen da.

4.-SARIA: Kategoria bakoitzari dagokion saria honako hau izango da:

- Haurrak: Audioko Zuhaitza liburu dendan erosteko bonoa
- Gazteak: Liburu elektronikoa (e-book)

5.- EPAIMAHAIA: Arlo literarioarekin eta berdintasunarekin zerikusia duten lagunez osatua egongo da.

6.- SARI BANAKETA:

2022ko martxoaren 8an aurkeztutako kontakizunen erakusketa egingo da Audio Ikastolako sarreran.

2022ko martxoaren 25ean irabazleak iragarriko dira.